

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

 LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

 LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak apirilaren 7tik 20ra bake eta bizikidetzaren lehen jardunaldiak antolatuko ditu

Gervasio Sanchez argazkilariak eta Bernardo Atxaga idazleak gizakiaren duintasunari buruz hitz egingo dute, eta bi antzezlanek indarkeriak sortutako minaren ondorengo adiskidetzeari jorratu

Lunes, 21 de marzo de 2016

["Sembrando convivencia / Una mirada desde el arte"](#). Titulu horrekin antolatu du Nafarroako Gobernuak bake, bizikidetzaren eta giza eskubideei buruzko lehen jardunaldiak; haien bidez, giza duintasunaren errespetuari eta bakearen kulturaren beharrari buruzko gogoeta bat sustatu nahi da.

Apirilaren 7tik 20era egingo dira Iruñeko Planetarioan, eta artea izango da aurreikusitako lau saioen lotura (literatura, argazkilaritza eta antzerkiaren diziplinetan).

Hala, Gervasio Sanchez argazki-kazetariaren (osteguna, hilak 7) eta Bernardo Atxaga idazlearen (asteazkena, hilak 13) parte hartzea izango da. Proyecto 43-2 taldeak (larunbata, hilak 16) proposamen artistiko bat eskainiko du, eta harekin terrorismoaren injustiziaren ondorengo adiskidetzeari aukerari buruzko gogoeta egingo da. Eta Baketik fundazioaren eskutik (asteazken, hilak 20), partaidetzako antzezlan batek guztion inplikazioa eskatuko du bizikidetzaren eta adiskidetzaren lanetan. Ekitaldi guztiak 19:30ean izango dira. Gaztelaniaz egingo dira, eta euskarak ere tartea izango du, Atxagaren agerraldian bereziki eta hilaren 20ko antzezlanetan. Doako sarrera da, edukiera bete arte.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olló kontseilariak aurkeztu du programa Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibarrekin batera.



JORNADAS DE PAZ, CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS
DEL 7 AL 20 DE ABRIL DE 2016

JARDUNALDIAK BAKEARI BIZIKIDETZARI ETA GIZA ESKUBIDEI BURUZ
2016ko APIRILAREN 7tik 20ra

"Sembrando convivencia. Una mirada desde el arte"

"Bizikidetzaren erin. Begiratu bat artearen bidez"

LEHENDAKARITZA	LEHENDAKARITZA	LEHENDAKARITZA	LEHENDAKARITZA
ABRIL JUEVES 7 APARRAZA OSTEGUNA	ABRIL MIERCOLES 13 APARRAZA ASTEAZKENA	ABRIL SABADO 16 APARRAZA LARUNBATA	ABRIL MIERCOLES 20 APARRAZA ASTEAZKENA
LEHENDAKARITZA GERVASIO SÁNCHEZ CONFERENCIA "Los motivos de la guerra. La dignidad es lo que importa"	LEHENDAKARITZA BERNARDO ATXAGA CONFERENCIA "Baketik 2014. La ciudad trunca"	LEHENDAKARITZA "LA MIRADA DEL OTRO" Grupo Proyecto 43-2	LEHENDAKARITZA "AY TO QUER ETA MIK ZERR" Baketik
LEHENDAKARITZA GERVASIO SÁNCHEZ FOTOGRAFIA "Los motivos de la guerra. La dignidad es lo que importa"	LEHENDAKARITZA BERNARDO ATXAGA FOTOGRAFIA "Baketik 2014. La ciudad trunca"	LEHENDAKARITZA "LA MIRADA DEL OTRO" Grupo Proyecto 43-2 Taldea	LEHENDAKARITZA "AY TO QUER ETA MIK ZERR" Baketik Taldea
TOKIA Planetario de Navarra C/Alfonso XIII s/n, 31001 Pamplona	ORDUA 19:30etatik 21:30era horretatik aurrera	ERAKUNDE PARTIDAKIDAK Nafarroako Gobernua, Baketik, Giza Eskubideen Defendatzailea	ERAKUNDE PARTIDAKIDAK Nafarroako Gobernua, Baketik, Giza Eskubideen Defendatzailea

Jardunaldien kartela.

Biek ala biek azaldu dute Departamentuaren asmoa dela urtero era honetako jardunaldi batzuk antolatzea, bake eta bizikidetzaren kulturari laguntzeko, eta bertan aniztasuna zerbait aberasgarri modura ikusiko da eta ez alderantziz, Ollok esan duenez.

Giza eskubideak urratzeko hainbat adierazpide sakon aztertzei harago, jardunaldi hauekin pertsonen duintasuna errespetatzeko beharrari buruz gogoeta bat sustatu nahi da.

Gerrako aurpegiak eta bizikidetzak

Lehen saioan (osteguna, hilak 7) gatazka armatuetan espezialista den argazkilari eta kazetari [Gervasio Sanchez](#) izango da protagonista (Kordoba, 1959), Heraldo de Aragon egunkariari lotuta dagoena, eta bertan argitaratzen du "[Los desastres de la guerra](#)" bere bloga. Haren hitzaldiaren izena "Gerraren aurpegiak. Duintasunak axola du" da, eta giza eskubideetan oinarrituko da, NBEk hura onartu zuenetik 60 urte betetzen dituela eta.

Gervasio Sánchezek ere La Vanguardia, Cadena Ser, BBC eta Tiempo aldizkarian lan egin du. Jasotako sarien artean, Argazkilaritzaren Sari Nazionala nabarmendu behar da, Jaime Brunet Nazioarteko Saria (NUPeko Brunet fundazioak emana), Ortega y Gasset, Kazetaritza Espainiako Erregea edo Julio Anguita Parrado. Hamabi bat argazki-libururen egilea da.

Asteazkenean, hilak 13, Joseba Irazu Garmendiak (Asteasu-Gipuzkoa, 1951), [Bernardo Atxaga](#) goitzenarekin ezaguna, "Euskal hiria. La ciudad vasca" izeneko hitzaldia emango du. Iraganari eta orainaldiari begiratu, bizikidetzarako giltzarri batzuk emango ditu. Javier Pagola kazetari nafarrak aurkeztuko du haren hitzaldia.

Besteak beste, honako hauen egilea da: [Obabakoak](#) (1989, Euskadi Saria, Narrazioaren Sari Nazionala, European Literary Award-eko finalista, IMPAC), [Gizona bere bakardadean](#) (1994), [Soinujolearen semea](#) (2004, Grinzane Cavour saria, Mondello saria, Times Literary Supplement Translation Prize saria), [Zazpi etxe Frantzian](#) (2009, finalista Independent Foreign Fiction Prize 2012an, finalista Oxford Weidenfeld Translation Prize 2012an) eta [Nevadako egunak](#) (2013). Haren obra 32 hizkuntzatan irakur daiteke, eta Montxo Armendáriz (Obaba, 2005), Aizpea Goenaga (Zeru horiek, 2006) eta Imanol Rayo-k (Bi anai, 2011) zinemara eraman dute. Euskaltzaindiko kide eta Erlea aldizkariko zuzendaria da.

"La mirada del otro"

Proyecto 43.2 taldeak (Ruth Cabeza, Pablo Rodríguez eta María San Miguel, eta Chani Martín zuzendaria) larunbatean, hilak 16, "La mirada del otro" ("Bestearen begirada") ekimen artistiko eta pedagogikoa aurkeztuko du indarkeriak eragindako minari buruz. Biktima batek, biktimarioak eta bitartekari batek parte hartzen dute, eta azken horrek adiskidetzeara errazteko bilera bat prestatzen du. Obrak bilera baten istorioa taularatzen du, prestakuntzatik bilera gertatzen den arte. Jendeari zabalduetako solasaldi batekin amaituko da antzezlanak.

2015eko apirilean estreinatutako "[La mirada del otro](#)" ("Bestearen begirada") Espainiako 23 antzokitik erakutsi da. Proyecto 43-2 konpainiak egindako lana honako hauek babesten dute, besteak beste: Bakearen Kultura fundazioa, Fernando Buesa fundazioa, Bakeola, Deustuko Unibertsitateko Aita Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko Bartolomé de las Casas Giza Eskubiden Institutua, Federico Mayor Zaragoza, Maixabel Lasa, Txema Urkijo, Mercedes Gallizo, Rafaela Romero, Jesús Eguiguren edo José Manuel Rodríguez Uribes, beste batzuen artean.

Azkenik, pertsonaren eraldaketarako [Baketik](#) fundazioak asteazkenean, hilak 20, "¿Y tú qué? / Eta hik zer?" izeneko antzerki forum saio bat eskainiko du Elena Aranbarri eta Mai Gorostiaga aktoreekin. Partaidetzako antzerki baten esperientzia bat da, eta bertan kultura eta hezkuntzaren balioak sustatu nahi dira gatazkek konpontzeko ardatz estrategikoko modura. Hiru gairi buruzko hausnarketarako espazio bat sortzen du: "zer gertatu da eta zergatik?", zer egin dezakegu orain? eta zer egin dezakegu etorkizunean berri gerta ez dadin?".

Gizarte anitza eta demokratikoa

Nafarroako Gobernuak, gobernua osatu ondoren, Foru Administrazioaren organigraman Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideek Zuzendaritza sortu zuen, gizarte anitz eta demokratiko kohesionatuago bat lortzen laguntzeko, indarkeriarik gabe, bertako arazoak eta adostasun ezak aztertzeko elkarrizketa, errespetu eta irtenbideen bilaketa partekatu batetik abiatuta, Olló kontseilariak azaldu duenez.

Zuzendaritza Nagusiaren aburuz, giza eskubideen urraketa presente dagoen bertako eta nazioarteko testuinguru batean, biktima guztiekiko elkartasunari begiratu behar zaio eta haien egi, justizia eta erreparazioarako eskubideari ere; horrez gain, bakearen kultura bat sustatu behar da, bizikidetzaren adiskidetze-prozesuak bultzatzea eta pertsona guztien giza eskubideak errespetatzeko apustu bat egitea.

Jardunaldiak Zuzendaritza Nagusiaren ekintza planaren barnean sartzen dira, eta honako programa nahiz jarduerak egiten ari da: ikur frankistak kentzen, gorpuak hobitik ateratzen, memoriaren tokiak eta terrorismoaren biktimentzako arreta. Laster, gazteen indarkeriaren departamentu arteko programa bat abian jarriko du.